

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

A21 Pirinioetako Autobiako obrek 620 lanpostu sortu dituzte Nafarroan

Anai Astiz Sustapen eta Etxebizitza kontseilaria Irati ibaiaren gaineko 200 metroko biaduktoaren obrak ikustera joan da

Martes, 13 de septiembre de 2011

Pirinioetako Autobiako obrek, Venta de Judasen eta Aragoiren mugaren arteko tartean, 620 lanpostu sortu dituzte Nafarroan. 225,7 milioi euroko inbertitu dira obran. Azpiegitura 2012ko Nafarroa Planaren barruan dago jasota.

Horixe azpimarratu du Anai Astiz Medrano Sustapen eta Etxebizitza kontseilariak autobien lanen barruan eta Irati ibaiaren gainean egiten ari diren biaduktoaren obretara egin duen bisitan Kontseilariak gauzatzen ari diren obra handia eta sortu diren lanpostu kopurua ere handia dela nabarmendu du, eta esan du: "Nafarroako Gobernua gaur egun burutzen ari den obra publikoko inbertsiorik handiena da".

Autobiaren obrek hartzen dituzten bi tarteek, Ventas de Judas eta Aragoiren mugaren artekoek, 16,6 kilometro dituzte guztira, eta 2012ko urtarrilaren 1ean jarriko dira abian. Zehazki, Venta de Judas-Yesa zatia (A21eko 4. zatia), 10,155 km-koa, Irunberriko loturan hasi eta azken tartearen hasieran amaitzen da, Esa udalerrian. Une honetan, obraren % 60 burutu da. Obra horien barruan Irati ibaiaren gaineko biaduktoa egin da, 200 metrokoa, eta lau baotan dago zatituta. Bao horien luzera 70 eta 40 metro artekoa da.

5. tarte eta azkena, Esa eta probintziako mugaren artekoa, 6,526 metro luze da. Esa herriaren iparraldetik pasatzen da eta Aragoiren mugaraino doa. Obra horien % 90 eginda dago.



Astiz kontseilaria harrobian izan daitezkeen luizietatik babesteko egitura baten aurrean



Irati ibaiaren gaineko biaduktua